



Elkar zaintzeko aliantza

Ekuatore Gineako emakume durangarrek osaturiko elkarte da Ceiba. Elkarri laguntzeko sortu zuten elkarte, orain 5 urte. Egin duten lanari eskerrak, aliantza sendoak egin dituzte herriko beste elkarteekin. • 5

'Ez dakit marrazten' liburuko marrazkien erakusketa Artekan

Kultura • Eider Eibar marrazkilari zornotzarraren 'Ez dakit marrazten' liburuko ilustrazio originalekin erakusketa ipini dute Durangoko Arteka liburudendan. Bere berbetan, horrelakoak aukera ona dira ume zein nagusiek euren marrazkiak beste modu batera ikusteko. Gainera, Eibarrek Juul hauteskunde literarioetarako izendapen berri bat jaso du; hamaikagarren edizioa du, jarraian, horrelako izendapena jasotzen. Horrez gainera, Joseba Sarrionandia idazle iurretarraren itzuleraren azala ilustratu zuen Berria egunkarirako. • 24



'Jantzari' dokumentala Zugaza zineman



Zinema • 'Jantzari' dokumentala proiektatuko dute Durangoko Zugaza zineman, maiatzaren 13an, 17:00etan eta 19:00etan. Sarrerak salgai daude. Iurretako dantza taldeak, Bideografik ekoiztetxeak eta ANBOTOK sortutako ikus-entzunezkoak tradizioa eta parekidetasuna lantzen ditu. • 22

Kasu positiboek gora egiten jarraitzen dute Otxandion

Herririk Herri | Apirilaren 15etik atzora bitartean, 70 kasu atzeman dituzte Otxandion. Bizkaian intzidentzia tasarik altuena duen herria da: 4.797,05. Udalak baheketa egitea eskatu dio Eusko Jaurlaritzari, baina ez du erantzunik jaso. • 8

SCHMIDT
Home SCHMIDT Home

**UDABERRIKO
ESKAINTZAK
—
MAIATZAREN
1ETIK 31RA ARTE**

SUKALDEAK
ETA ETXEKO ALTZARIAK

Murueta Auzoa z/g - Eroski Merkatal Zentroa - 48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt





Iban Arantzabal Arrieta
Tokikomeko presidentea
ELGETA | 1975

“Gaur egun nekez ikusten dut toki hedabideok gauden tokian egotea Tokikom ez balego”

Iban Arantzabal Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusia Tokikomeko presidente izendatu dute

GOIENA • TOKIKOM

Tokikomek, toki komunikabideen bateraguneak, urteko batzar orokorra egin zuen joan zen barikuan, Eibarren. 2020aren balorazioa egin zuten. 2021erako eta aurreragoko asmo eta helburuak ere izan zituzten hizpide. Batzar hartan gauzatu zen presidente erreleboa ere. Izan ere, azken lau urtetan Tokikomeko presidente izan den Jone Guenetxeak Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusi Iban Arantzabali pasatu zion lekukoa.

Tokikomeko presidente berria zaitugu. Zer pentsatu zenuen aukera planteatu zizutenean, eta zer asmogaz hartu duzu?

Animoagaz hartu beharrean zaude kargua, eta halaxe egin dut. Momentu polita da; badao zeregina, eta ilusioz beterikoa ere bada momentua. Mundu aldakor honetan

bagabiltza, zelanbait, posizionatzen, eta, alde horretatik, animoagaz eta gogotsu nago. Bestalde, administrazio kontseiluan gutariko edozein izan zitekeen presidente, egia esan. Kargua hartzen dut administrazio kontseiluaren eta batzar orokorraren ahobatezkotasunagaz, eta hori garrantzitsua da. Gura nuke tren berean jarraitzea Tokikomeko bazkide guztiok, eta horretan ahaleginduko gara.

Kargua egoera nahikoa aldrebasean hartu duzu: 2020an COVID-19ak hankaz gora ipini zuen mundua eta 2021 honetan ere gauzak ez dira guztiz egonkortu. Tokikom bera zein puntutan dago une honetan?

Tokikom enpresa sana da, egonkortua, lantalde txiki baina efektibo batez lanean ari dena. Oso jende ona dauka eta talde giroa dago. Hori ez da leku guztietan gertatzen.

Badauka bere plan estrategikoa, bere misioa zehaztuta eta adostuta. Denon artean adostutakoak dira, eta horrek ere ematen du indarra. Gainera, badaukagu norabidea ere. Alde horretatik, pozik gaude, egia esan. 2020a katramilatsua izan da. Edozein etxetarako izan den legetxe. Bada, guretzat ere bai. Tokikom osatzen duten bazkide guztientzat eta, bereziki, hedabideentzat.

Tokiko informazioaren kontsumoa izugarri igo zen iaz. Hor daude datuak. Baina, era berean, krisi ekonomikoaren ondorioak, publizitate sarreren jaitsierak... horrek guztiak ere izan zuen eragina tokiko komunikabideen jardunean. Zelan eragin zien 2020ak Tokikom osatzen duten komunikabideei?

Eragin zuzena izan zuen. Batetik, poza eragin zuen. Ze, bazen informazioa emateko garai bat, kazetaritza egiteko garai bat, eta horrek profesionalentzat ere balio du. Ze, leku batean jartzen zaitu, non jendeak ikusi, entzun eta irakurri gura zaituen. Gure webguneetako bisitak, orokorrean, Tokikomeko guztiak hartuta, %46 igo ziren. Jendea informazio gosez zegoen. Ez bakarrik Txinan zer gertatzen zen jakiteko, baizik eta norbere herrian zer gertatzen den jakiteko ere. Hori eman du Tokikomek: hainbat datugaz, grafikogaz... eta, gainera, egunero-egunero berrituta, izan aste barru edo izan aste akabera. Eta horrek lagundu du webguneetako bisiten igoeran. Hori da alde gozoa:

egiten duzun horri jasotzaileak erantzuna ematen diolako. Baina badauka gazitik ere: hori egitea %30 gehiago kostatu zaigu, batez beste. Kazetaritza gastu handiagoagaz egin dugu. Eta hori pisutsua da. Lan gehiago eskatzen du. Zer ez genuen egiten grabazio bat egiteko! Pandemi horrek, hasieran oso ezezaguna zenak, demaseko denbora galera sortu zuen lan egiteko orduan. Gainera, gure kasuan, bazegoen beste kontu bat: hedabideok ezinbestekotzat izendatzen gintuzten, premia biziko ondasun. Bagenuen egiteko bat eta badaukagu: informazioa beharrian bat da, ez eskubidea bakarrik.

Markan ere eragin beharko dugu oraindik. Sinesgarritasunean pauso handiak ematen ari gara

Horrelako egoera batean, Tokikomen moduko talde batek zelan lagundu diezaieke bere barnean hartzen dituen kideei?

Ezinbestekoa izan da. Tokikom osatzen dugun hedabideetan denerik dago, eta denok gauza bera oinarri ezberdinetatik egiten hasiko bagina, askoz ere gehiago zailduko litzateke bakoitzaren egitekoa. Toki hedabideetako profesionalak egin duten lana ez dakit bikoitza izan den, baina askoz ere handiagoa

izan dela eta malgutasun hori erakutsi dutela, bai. Goienan eta beste edozein hedabidetan berdin, izan txikiagoa edo handiagoa.

Tokikomek bateratze bat ekarri du. Pandemiaren datu-bilketagaz azalduta, esaterako: datuak jaso, azkar webguneratu eta konparatu ditugu; herriekin, gure ondoko bailaragaz, Hego Euskal Herriagaz, ahal zenean Euskal Herriagaz... eta mapa bat osatu dugu. Gure kasuan, gertuko mapa bat. Horrek du benetan garrantzia, gertuko datu horrek. Zure herriko datu horrek, baina ez irla baten moduan, Euskal Herria subjektu moduan hartuta

“Momentu polita da; badao zeregina, eta ilusioz beterikoa ere bada momentua”

baino. Tokikomek Euskal Herria marrazten du eta laguntzen du, erremintekin, datuen kudeaketa-gaz, informazioagaz... hainbat modutara. Gaur egun oso nekez ikusten dut toki hedabideok gauden tokian egotea Tokikom ez balego.

Bakoitza bere aldetik joanda...

Bai, bikoitza kostatuko litzaziguke. Debagoienean, Sorluzen, Elgoibarren, Beran, Zumaian, Durangon... edonon oinarri bat izateak asko laguntzen digu, eta hori Tokikomi eskerrak lortzen da. Batuta, askoz eta efikazia eta efizientzia handiagoagaz egiten dugu kazetaritza. **Tokikomeko kideak aipatu ditugu, eta barikuko batzar orokorraren ostean kide bi gehiago ditu: Tolosaldeko Ataria eta Bizkaiko Arratia bailarako Begitu hamabostekaria. Berri ona, ezta?**

Oso ona, besteak beste, erakusten duelako jendeak Tokikomen egon gura duela. Zuzeneko hartu-eman horrek berezko garrantzia duelako eta ekarri handia egiten diolako hedabideari. Tolosaldeko Ataria bera Tokikomek garatutako plataformagaz ari zen lanean aspalditik, eta orain eman du saltoa bazkide izatera. Plataformaz gainera, papereko edizio sistema baterako aukera dagoelako, telebistak egiteko modua dagoelako, kudeaketa aurreratuan sartu daitekeelako gainerakoekin batera eta gainerakoengandik ikasi dezakeelako, berak erakutsi... Tokikomek berezkoa du ekarri hori, uste dudalako eman ere asko egiten duela. Etorriko dira hedabide gehiago ere, Tokikom beharrezkoa da tokiko hedabideentzat.

Zer azpimarratuko zenuke Jone Guenetxeak lau urte hauetan egin duen lanari buruz?

Jakin du Bizkaian ere eragiten, Tokikomen bitartez. Eta topatu ditu aliantzak erakundeetan. Lehen baino batuago daude, lehen baino hobeto lan egiten da. Ez bakarrik Bizkaian. Jonek oso ondo ordezkatu

gaitu gainerako erakundeekin ere: Jauriaritzagaz, Nafarroako Gobernuagaz, eta abarrekin. Datuek argi erakusten dute aurrera egin dela. Orain, kazetaritzara bildu gura ditu indarrak, eta seguru emango dituela hor ere fruituak. Horratx Anbotok atera duen elkarrizketa Sarrionandiagaz, edo *Jantzari* dokumentala.

Zeintzuk dira Tokikomek, bai barrura begira eta baita kanpora begira ere, dituen erronka edo eginbehar nagusiak?

Uste dut barrura begirako eginbeharreko lan handi bat eginda dagoela, adostu direlako hainbat gauza, lehen esan dudan moduan, baina oraindik ere geratuko zaigu, eta denoi dagokigu, gainera, kohesio hori. Hedabide txikienetik handienara. Nik uste dut hor bada goela lanerako esparru handi bat. Elkarrizketa eman diezaiokigu eta elkarrengandik gehiago jaso dezakegu. Uste dut hor asmatzen badugu are eta hobeto joango direla urte hau eta hurrengoak ere.

Kanpora begira?

Markan ere eragin beharko dugu oraindik. Sinesgarritasunean pauso handiak ematen gabiltza. Kanpora begira batuta agertzea ere uste dut tokatuko zaigula talde moduan, eta hainbat informazio ematea talde horretatik abiatuta ere. Adibide gertuko bat daukagu Sarrionandiagaz. Anbotok lortu du eskusiba hori. Ondo egindako lan bati eskerrak eta lortutako konfiantzari eskerrak elkarrizketatuagaz. Elkarrizketa hori berori tokiko guztietan batera zabaltzea, seguruenik, irabazteko dagoen kontuetako bat da. Batera zabaltzeko modukoak izan daitezke Euskal Herriko edozein artistaren edo kanpotik datozen dena delako elkarrizketak. Pentsatzen dut horrelako pausoak ere ematen hasiko garela, ze tokiko aldizkaria, telebista edo webgunea ez da bakarrik toki horretakoa. Gertuko guretzat Goazen!-eko aktore bat da gaur egun, adibidez, edo EITBko informatiboetako aurkezlea edo kirolari ezagun bat. Ez da tokikoa, baina bai gertuko, eta hori da interesatzen zaiguna.

Etxebarri zure blogean, hedabideei begira etorkizunerako hainbat gako ematen dituzu. Aipatzen dituzu, besteak beste, harpidetza digitala, inteligentzia artifizialaren erabilera, sare sozial handien aurrean hedabideek izan behar duten eginkizuna... Horiek ikusten dituzu gako nabarmen moduan?

Bai, eta ez da nik bakarrik ikusten dudala. Mundu osoan 300 bat profesionali egindako galdeketa baten ostean ateratako ondorioak dira. New York Times, Telegraph, Financial Times, The Guardian... halako hedabide handietan, berez guretzat haiengana heltzeko zail izango liriatekeen horietan



agertzen diren hausnarketak dira. BBCK egindako inkesta baten dago oinarrituta. Han aipatzen da inteligentzia artifiziala. Berez, tokiko hedabide batentzat urrun geratu daitekeen hori gerturatzen digu Tokikomek. Inteligentzia artifizialaz, ez bakarrik berba egiteko; izan ere, dagoeneko bagoaz hiru urte lanean inteligentzia artifiziala oinarri duen proiektuan, eta horrek

“Mundu aldakor honetan bagabiltza posizionatzen, eta, alde horretatik, animoagaz eta gogotsu nago”

emango ditu fruituak; 2021ean ez bada, 2022an. Elkarrizketa hau berau transkribatu ahal izango da testua makina batek eginda, eta ez kazetari baten bitartez. Horrek ere lagunduko digu kazetari hori are eta garrantzitsuagoak diren gauzetan inplikatzeko. Ze makinak egin lezakeena egiten egotea... Kazetariak behar du are kazetariago izan eta kazetaritzari are eta balio handiagoa eman. Nik uste dut horiek direla erronketariko batzuk. Horregaz lotuta, negozio moduan begiratu beharko dugula, zelan publikitate jaisten ari den eta zelan harpidetza digitalei garrantzia eman beharko diegun... Hainbat gauza dira inkesta horietan agertzen direnak eta guretzat iparra direnak. Egon behar dugu antena horregaz ere, munduan zer mugitzen den ikusteko eta, moldatuta, gurera ekarri.

Tokikom, zelanbait esateko, gizartearen ekosistema baten parte da, hainbat alde dituen, eta erakunde publikoak daude hor. Herritarrek ere badaude hor, eta gainerako hedabideak ere bai; esaterako, Tokikom bera parte den euskarazko hedabide ez publikoen elkartean, Hekimen. Zer harreman dago hiru horien artean?

Herri Ekimeneko Hekimen elkarteen parte da Tokikom. Bazkide bat gehiago da. Sortzaileetarikoa. Administrazio publikoa aipatu duzu bigarren. Goienan ohituta gaude erakunde publikoekin batera jarduten. Sorreratik bertatik jabeakide dituelako Debagoieneko udalak. Baina ez da ohikoena iza-

ten hedabide batean hala izatea. Jabeakide ez izanda ere, uste dut hartu-emanak gozatu egin behar direla. Bide horretan, administrazioak ere eman ditu pausoak. Hekimenek eman ditu pausoak eta guk, gure aldetik ere, gutariko bakoitzak eman ditu pausoak. Igarriko da.

“Euskarazko tokiko hedabideon indargunerik garrantzitsuenetarikoa sinesgarritasuna da”



Jone Guenetxea, Tokikomeko presidente ohia eta Iban Arantzabal.

Jone Guenetxeak Tokikomeko karguan egon den lau urteotako ibilbidea erreparatu du.

Lau urteotako zein balorazio egiten duzu?

Azken lau urteotako balorazioa egiterakoan, esango nuke oso aberasgarria izan dela Tokikomen egindako lana, baina, batez ere, talde lana izan delako. Norbait egon behar da presiden-

te kargu horretan, eta azkenengo lau urteetan niri tokatu zait.

Hemendik aurrera, Iban Arantzabal egongo da. Dena dela, horren atzean talde lana dago, eta sektoreari eta gauza askori buruz ikasteko balio izan dit.

Azken urtea gogorra izan da?

Lau urte hauetan pandemia bat sartu zaigu tartean, eta horrek asko zaildu du hedabideon lana.

Horrek ere markatu du lau urteotako ibilbidea.

Eta hemendik aurrera zer? Zeintzuk dira hurrengo erronkak?

Esango nuke hemendik aurrera beste ibilbide bat martxan ipiniko dela, baina hemen ere talde lana izango dela abiapuntua. Eta oraingoan ere hainbat puntu izango ditugula langai. Batez ere, indarguneak mantentzea. Euskarazko tokiko hedabideon indargunerik garrantzitsuenetarikoa sinesgarritasuna da, gure komunitateagaz dugun gertutasuna, zero kilometro horrek ematen digun gertutasuna.

Horrez gainera, orain arte egiten asmatu dugun moduan, komunikazioaren mundua sasoi berrietara egokitzea geroago eta azkarrago aldatzen ari da eta gerogo eta azkarrago egokitu behar dugu paradigma berrietara, eta, horretarako, tresnak behar dira. Horretarako dago hor Tokikom.

Jesuiten Etxeak etapa berri bati ekin dio Durangon, herriko errealitatean duen presentzia areagotzeko

Egitura sendoago batez eta ikuspegi komunitario batetik, egoera zaurgarrian dauden etorkin gazteei laguntzen die

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

2020ko ekainean, Jesusen Lagundia amaitutzat eman zuen Durangon zuen elkartearen ibilbidea, eta horregaz batera bertan behera geratu zen Jesuiten Etxea proiektua. Egitasmo horregaz, egoera zaurgarrian zeuden etorkinei gizarteratzen lagundu zien 13 urtean. Orduan, Jesuitek adierazi zuten ez zutela alde batera utziko Durangon zuten obra, eta horrela gertatu da. Proiektu berri bat martxan dago eta horren gaineko xehetasunak eskaini dituzte asteen.

Helburuak sasoi bateko berdina dira. Egitura aldatu da batez ere, eta baita lan egiteko modua ere, gaur egungo gizartera eta beharizanetara eguneratuago eta egokituago daudelako. Jesusen Lagundia plataformaren barruan dagoen Ellacuria Fundaziotik kudeatzen dute Jesuiten Etxea eta sare zabala bat sortu dute euren inguruan, Lagundiaren barruko eragileekin (San Jose Jesuitek Ikastetxea, ikastetxeko Hiritarta-

sun Taldea eta CVX Arrupe elkar-tea...) zein erakunde publikoekin (Durangoko Udala, Durangaldeko Mankomunitatea...) batera.

San Jose Jesuitek ikastetxeak aurrerapauso bat eman du aurreko proiektuan zuen parte har-

tzeagaz alderatuta. Hiritartasun taldea arduratzen da horretaz, hezitzailez, irakaslez eta gurasoz osatutako boluntario taldea. Arratsaldeetan gaztelania, ingeles eta matematika eskolak ematen dizkiete gazteei.

Gaur egun 14tik 18 urtera arteko 16 gazte daude proiektuan. Gehienak euren egoera erregulartzeko prozesuan daude. Maroko, Algeria, eta Magreb zonaldekoak dira. Beste jatorri batzuetakoak ere izan dituzte.



Ellacuria Fundazioko, Loiola-Santader Plataformako, Jesuitek Ikastetxeko eta Hiritartasun Taldeko kideak proiektuaren aurkezpenen.

GKSk informazio gune bat ipiniko du zapatuan Durangoko Alde Zaharrean

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko GKSk *Soldatapeko lana: Dominazioa eta pobrezia* izeneko kanpaina martxan ipini du, lan merkatuak gazteengan eragiten dituen ondorioak aztertzeko. Horretarako, informazio gune bat ipiniko dute gaur Durangoko

Antolakundeak dioenez, gazteriak geroago eta orokortuago bizi du pobrezia

Alde Zaharrean. 18:00etan atonduko dute, eta gazteriak soldatapeko lanean bizi izan dituen esperientziak batuko dituzte bertan. Gazte antolakunde sozialistaren esanetan, gazteriak "geroago eta orokortuago bizi du pobrezia". Kontraturik bako lanek edo praktika-kontratuek soldataren "debaluazioa" dakartela salatu dute.

Durangoko ostalari bakoitzari 1.500 eurora arteko laguntzak ematea onartu du udalbatzak

Durangoko Udalak 175.000 euroko poltsa aktibatu du herriko ostalariari diruz laguntzeko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak 1.000 euroko laguntza eskainiko dio herriko ostalaritza negozio bakoitzari, eta kopuru horri beste 500 euro batuko dizkio taberna edo jatetxe onuradunak hiru behargin baino gehiago baditu, 30 metro karra-tutik beherako terraza badu, edo terrazarik ez badu. Aritz Bravo EH Bilduko zinegotziak aste honetako osoko bilkuran eman ditu neurri berriari buruzko azalpenak. "Abenduan Durangoko ostalariarekin batu-

ginen, eta ordutik hona hartu-emanen egon gara Bizkaiko ostalarien elkarrekin eta Dendak Bai-gaz. Euren ekarpenekin landu dugu neurria", azaldu du. Honako hau da emaitza: udalbatzak 175.000 euroko diru partida onartu du herriko ostalari bakoitzari bizi duten egoera larria arintzen laguntzeko asmoz.

Erabakia babestu dutenak EH Bildu, Elkarrekin Podemos-Herriaren Eskubidea eta PSE-EE izan dira. Gobernu taldeko kideek "gehien sufritzen dabilzane" lagundu gura

die. Jessica Ruiz sozialistak ere antzerako balorazioa egin du. Adierazi du badirela egoera larrian dauden beste hainbat sektore ere, eta horiei ere lagundu behar zaiela. Baina bat egin du egoerarik larrienera bakoitzari bizi duela esatean. EAJk abstentziora jo zuen. Josune Escotak defendatu du jeltzaleak bat datozela neurriaren funtsagaz, baina "hutsuneak" ere badituela dio. "Gardentasun eza" egon dela eta neurria "berandu" datorrela iritzi dio, besteak beste.



Terraza bat Durangoko Andra Mariko elizpearen aurrean.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko apirilaren 30a
19. urtea - 847. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Joita Isabel Bindang Aly, Carolina Muana Remi eta Estena Ada Nve Mokuy, Ceiba elkarteko kideak.

“Bestea zaintzen ez baduzu, besteak ez zaitu zainduko”

Ceiba elkarte Ekuatore Gineako 15 emakume durangarrek osatzen dute. Elkar zaintzeko eta elkarri laguntzeko sortu zuten elkarte, orain 5 urte. Lan hori hasita dago fruituak ematen, eta aliantza sendoak sortu dituzte Durangoko gainerako elkarteekin

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Estena Ada Nve Mokuy, Carolina Muana Remi eta Joita Isabel Bindang Aly dira Ceiba elkarteko kideetariko hiru. Elkarte elkarri laguntzeko sortu zen, baina durangar guztiei zabalduzako beste hainbat egitasmo ere antolatzen dute. Koronabirusagaz, oster, ezin. Baina elkarteko kideek ondo gogoan dituzte Munduko Arrozen jaialdian edo eskaintako dantza saioetan bizitakoak: "Durangoko komunitatean integratu gura dugu. Horri ekin genion, eta horri jarraitu gura diogu".

Noiz eta zergaitik sortu zenuten elkarte?

Estena Ada Nve Mokuy: Orain bost urte sortu genuen. Durangon Ekuatore Gineako herritar gutxi gaudenez, elkar zaintzeko eta elkarri

laguntzeko helburuz sortu genuen elkarte. Horretarako eta Durangon antolatzen diren bestelako egitasmoetan parte hartzeko. Herriko elkarteekin ere bagaudelako hartu-emanetan. Baina elkar zaintza da elkartearen oinarria. Gutariko batek arazoren bat duela? Batzen gara, berba egiten dugu eta denon artean konpontzen ditugu arazoak. **Babes sare bat zarete, beraz.**

E.A.N.M.: Bai. Elkarri laguntzeko sare bat. Gutariko batek momenturen batean arazoren bat badu, beharizan horiek betetzeko antolatzen gara. Udalak ere laguntzen digu. Lokalak uzten dizkigu, baliabide materialak eskaintzen dizkigu.

Gainera, gauza jakina da Durangoko Mugimendu feministagaz sintonia duzuen.

Emakumez osatutako taldeen artean hartu-eman handia dugu, gustatzen zaigu elkarregaz eragitea

ESTENA ADA NVE MOKUY

E.A.N.M.: Bai, emakumez osatutako taldeen artean hartu-eman handia dugu. Gustatzen zaigu elkarregaz eragitea.

Joita Isabel Bindang Aly: Azken finean, Durangoko komunitatean integratu gura dugu. Bide horri ekin genion, eta bide horri jarraitu gura diogu.

Lehen esan duzue Ceiba elkarri laguntzeko sortu zenutela. Pandemiak, hain zuzen ere, hori bistaratu

du: zaintzearen beharizana. Zelan bizi duzue hori?

Carolina Muana Remi: Galdera horri neuk erantzungo diot, gertutik bizi izan dudana zerbait dudalako kontatzeko: pandemian zehar gaixorik egon nintzen. Koman egon nintzen. Nire senarra ere bai. Eta momentu horretan ikusi nuen gure elkartearen lana zeinen funtsezkoa den. Senarrak nik baino lehenago irten zuen komatik, baina ez zuen kalera irteteko modurik. Ez elikagaiak erostera ez beste ezertara. Gure elkarteko emakumeak izan ziren etxe atarira behar genuena ekartzen zutenak. Eta ez dut berbarik hori eskertzeko. Horregaitik diogu elkarri laguntzeko gaudela.

E.A.N.M.: Nire irudipena da emakumeok gehiago laguntzen diogula elkarri. Ekuatore Ginearako elkartasun kanpaina egin genuenean, Durangoko emakume pilo bat etorri zen laguntzera. Egundokoa izan zen. Oso esker oneko gaude. Eta guri ere laguntzeko eskatu izan digutenean, hor egon gara. Bestea zaintzen ez baduzu, besteak ez zaitu zainduko. Elkar ezagutzeko eta integratzeko modu bat dela iruditzen zait.

Durangoko EAJk hornidura merkatua dinamizatzeko plana helarazi dio gobernu taldeari

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko EAJk hornidura merkatua dinamizatzeko plana helarazi dio gobernu talderi. Epe laburrera eta epe ertain-luzera begirako ekintza sortak proposatu dituzte bertan. Epe motzera begirako ekintzen artean, sasoiko produktuen ikastaroak, saskien zozketak, eskualdeko produktuekin lotutako azoka tematikoak edo etxerik etxeko banaketa zerbitzua eskaintzea proposatu dute. Horiek denak dekorazio berri batez; 'food truck' batzuekin eta eskualdeko musikarien partaidetzagaz girotu daitezkeela iradoki du EAJk.

Epe ertain-luzerako ekintzen artean, merkatua modu integratuean birgaitzeko proiektua azpimarratu du. Mireia Elkoroi-

Mireia Elkoroi:
"Eraikuntza multzoaren eraberritze integrala planifikatu behar dugu"

ribe bozeramailearen esanetan, "eraikuntza multzoaren eraberritze integrala planifikatu" behar da, "jarduera aniztasuna duen espazio bakar moduan, toki estrategiko batean kokatuta, herriaren erdigunean, hain zuzen ere". EAJk topagune bat "itzuli" gura du Durangora, "bertako ekoizleek euren produktuak erakusteko aukera izan dezaten eta bisitariak hainbat jardueraz gozatu dezaten".

Bestalde, merkatuko saltzaileen kontsezioak urrian amaitzen direla-eta, kontsezio prozesua martxan ipintzeko eskatu du EAJk. Bestalde, gogora ekarri du aurtengo udal aurrekontuetan "252.348 euroko diru partida sartzea lortu" zuela, merkatu plaza dinamizatzeko helburuz.

arnasa GARA

Arnasa Gara kanpainak, zortzi bideo laburren bidez, euskararen arnaguneetan ohikoak diren egoerak erakusten ditu, horien inguruan hausnartzeko.

EGUNEROKOAN ZER?

Euskarari bizi-bizirik eusten dioten udalerriak dira **arnasguneak**. Euskararen biziberritzean berebiziko garrantzia dute, eta benetako arnasa dira gure hizkuntzarentzat.

Txintxirri Ikastolako ikasleek 400 euro batu dituzte Atxondon dauden errefuxiatuentzat

Bizikletak hartu eta Txintxirriko ikasleek Axpeko aterpetxera eraman dituzte Elkartasun Azokan batutako diruak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorriko Txintxirri Ikastolako LH-6ko ikasleek elkartasun ekimen bat ipini zuten martxan urtarrilean. Jaiotzen garen lekuak norbere bizitzako oinarrizko premiei zelan eragiten dien aztertzea zuten helburu ikasleek. Hori aztertzeko asmoz, zenbait ekimen egin zuten, tartean elkarriketak Elorriko hezkuntza, osasun eta administrazio arloko arduradunei.

Dirua bizi-baldintzak hobetzeko premia duen kolektibo bati ematea erabaki dute ikasleek

"Behin ondorio guztiak jasota eta ikasitako guztiak gure inguruan eragiteko ematen digun aukeraz jabetuta, elkartasun ekimen bat aurrera eramatea erabaki genuen", azaldu dute Txintxirri Ikastolako kideek. Hori horrela, Elkartasun Azoka antolatu zuten. Azokan negutegiko barazkiak, ikasleek eginitako eskulanak eta etxetik ekarritako hainbat gauza ipini zuten salgai. 400 euro jaso zituzten guztira.



Txintxirri Ikastolako ikasleak Atxondoko Harrera Herriko kideekin batera.

Atxondo Harrera Herria

Elkartasun azokan batutako dirua bizi-baldintzak hobetzeko premia duen kolektibo bati bideratzea erabaki dute Txintxirriko ikasleek, eta Atxondo Harrera Herria taldeko errefuxiatuei ematea. "Errefuxiatuek euren bizipenen berri eman ziguten. Euren herrietako bizi-baldintza kaskarrak kontatu zizkigu-

ten, gurera heltzeko igaro behar izan zituzten arrisku egoeren berri

Elkartasun keinuetatik ekintzetara zelan igaro daitekeen erakutsi gura izan dute ekimenagaz

eman ziguten eta euren beldur eta itxaropenak partekatu zituzten", jarraitu dute ikastolako kideek.

Hori horrela, bizikletak hartu eta LH-6ko ikasleek Axpeko aterpetxera bisita egin dute, eta azokan lorturiko etekinak eraman dizkiete errefuxiatuei. Honeguz, elkartasun keinuetatik ekintzetara zelan igaro daitekeen erakutsi gura izan dute.

Elorriko emakumeak boteretzeko ikastaroak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorriko Udaleko Berdintasun Sailak emakumeen boteretzeko ikastaroak eta berdintasunerako ekimenak ipiniko ditu martxan udaberrian. Udaletik azaldu dutenez, Berdintasun Sailak zazpi tailer eskainiko ditu "berdintasun erreal eta eraginkorrerantz" aurrera egingen jarraitzeko eta emakumeen boteretzeari balioa emateko. Zazpi tailer horietatik sei emakumezkoentzat izango dira

Jarduera hauek maiatzaren 5etik ekainaren 17ra bitartean egingo dira

eta zazpigarrena gizonezkoentzat. Honako hauek izango dira ikastaroak: mendi-orientazioa, ibilaldi osasuntsuak, solasaldi feministak, kultura erotiko berria, egin barre eta barre eragin, 'trabajo de hogar y cuidados: prevención de riesgos laborales' eta Izan GizON.

Udaletik jakinarazi dutenez, jarduera guztiak maiatzaren 5etik ekainaren 17ra egingo dituzte, eta izena emateko berdintasuna@elorrio.eus helbidera idatzi beharko da.

Berbalagunek bisita gidatua antolatu du Berrizko Aiarbi baserrira

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Durangaldeko Berbalaguneko kideak ez dira etxean geratzekoak eta bisita gidatua antolatu dute Berrizen maiatzaren 8ra-

Maiatzaren 8an egingo duten bisita gidatura joan gura duenak izena eman beharko du aurretik

ko. Oraingoan, ibilaldia antolatu dute Berrizko Aiarbi baserrira. Hango ganadutegia ezagutu eta esnekiak zelan egiten dituzten ikustea da, besteak beste, euren asmoa.

Plazak mugatuak dira eta aurrez 639 400 786 zenbakira deituta izena eman beharko da.

Maiatzaren 9ra arte aukera dago Marixurriek antolatutako udalekuetan izena emateko

Aurten udalekuak egongo dira Atxondon, hiru astean; ume bakoitzak gura duen asterako izena emateko aukera izango du

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Marixurriek aisialdi elkarteak udalekuak antolatu ditu 2021eko udarako. Aisialdi taldeko kideek sare sozialetan jakinarazi dutenez, udalekuak hiru astekoak izango dira aurten ere, eta familia edo ume bakoitzak gura duen asterako apuntatzeko aukera izango du.

2021eko udalekuak honako hiru asteetarako antolatuko dituzte Marixurrieko kideek: lehenengo astea ekainaren 28tik uztailaren 2ra izango da, bigarrena uztailaren 5etik 9ra eta hirugarrena uztailaren 12tik 16ra.

Horrez gainera, eskolako oporren ostean ere goizeko zerbitzua eskainiko duela jakinarazi du aisialdi elkarteak. Hori ekainaren

21etik 25era izango da, 10:00etatik 12:30era.

Izen-ematea

Aurtengo udalekuetan izena

Eskolako oporren osteko astea goizeko zerbitzua eskainiko du aisialdi elkarteak

eman gura duten edo udalekuen inguruko informazio gehiago jaso gura duten atxondarrek marixurriedok@gmail.com helbidera idatzi beharko dute. Maiatzaren 9a izango da azkenengo eguna izena emateko.




Ekainaren 28an hasiko dituzte udalekuak Atxondon.



merkataritza gida sarean

anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkatari gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)

Mañariko denda berria astelehenean zabalduko dute eta arduradunek eskualdean zabaltzen duten hirugarrena izango da

Mañariko negozio berria kudeatuko duten arduradunek harategi bana dute martxan Durangon eta Atxondon

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko denda berria astelehenean zabalduko dute eta Martxel Denda deituko da. Durangaldean izen bereko beste negozio bi daude, arduradun berarenak. Orain sei urte Durangon harategi bat zabaldu zuten Herria tabernaren ondoan, eta iaz beste harategi bat ipini zuten martxan Atxondon. Beraz, Mañariko hirugarrena izango da eta, haragiaz gainera, askotariko produktuak salduko dituzte.

Diana Cristina Gonçalvesek egingo ditu dendari lanak. 30 urte ditu, portugaldarra da, 21 urte daramatza hemen eta Durangon bizi da. Ofizio honetan sei urteko esperientzia du Durangoko harategian. Etapa berriari ekiteko "ilusioz" dagoela dio, baina baita "apur bat urduri" ere. "Jendeak zu ezagutu arte, nik eurak ezagutu arte... prozesu bat da. Garrantzitsuena bezeroekin gertutasun hori eraikitzea da. Tratu pertsonalizatu hori

bilatuko dut", adierazi du. Euskara ulertzen duela eta bezeroek diotena ulertzeko kapaz dela dio, baina berba egitea kostatzen zaiola. "Iaz euskara ikasten hasi nintzen, baina gero osasun-krisia heldu zen eta bertan behera utzi behar izan nuen. Berritoki euskara eskolak hartzea da nire asmoa" adierazi du.

"Garrantzitsuena bezeroekin gertutasun hori eraikitzea da. Prozesu bat da"

Fruten gunea, erdian

Harategia aurreko dendan zegoen toki berean egongo da, atzeko aldean, baina gainerako espazioaren banaketa aldatu egingo dute. Askotariko produktuak alboetan egongo dira, horma ondoan ipinitako apaletan. Erdiguneko espazio osoa fruta erakusteko erabiliko dute. "Modu horretara, denda osoa



Diana Cristina Gonçalves dendaria Mañariko denda berrian, egunean ateratako argazkian.

eta barnealdeko harategia gehiago ikusten da. Lehen, erdigunea apalez beteta zegoen eta ikuspegia estaltzen zuen", azaldu du Gonçalvesek.

Bertoko ekoizleak

Durangaldeko produktuek gune propio bat izango dute. Han egon-

go dira, besteak beste, Arrazolako ekoizleen ezitia, Garaiko marmelada, Mañariko Launa ardoa, Durangoko saltsa pikantea, eta, Izurtzako eta Otxandioko gaztak. Ogia Arrazolatik ekarriko dute, bazkia Jurretakoak dira eta harategian Durangoko ekoizleen oilas-koak eta txerriak salduko dituzte.

"Produktuak hamaika tokitatik ekarri genitzakeen, baina bertoko ekoizleen aldeko apustua egiten dugu", azaldu du Gonçalvesek.

Ordutegiari dagokionez, denda astegunetan eta zapatuetan zabalduko dute. Astegunetan goiz eta arratsalde egongo da zabalik eta zapatuetan eguerdira arte.

Positibo kasuek ez dute etenik eta egoera kezkagarrian jarraitzen du Otxandiok

Egoerari aurre egin eta kutsatze katea eten guran, bizikide ez direnekin lonjetan, txaboletan, etxeetan zein otorduetan ez batzeko eskatu die udalak herritarrei

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Aste honetan egoerak ez du onera egin Otxandion. Apirilaren 15etik atzora bitartean 70 kasu atzeman dituzte. Hau da, 1.343 biztanle dituen herrian, biztanleriaren ia %5 COVIDagaz kutsatu da epealdi horretan. Bizkaian intzidentzia tasarik handiena duen herria da: 4.797,05.

Egoitz Garmendia Otxandioko alkateak azaldu duenez, "arduraturata" daude herrian bizi duten egoeragaz. Udalak "hainbat bider" eskatu dio baheketara masiboa egiteko Eusko Jaurlaritzari, baina ez dute erantzunik jaso. Oraingoz, Osasun Sailatik hartu duten neurri bakarra Otxandion itxialdi perimetrala ezartzea da. Joan zen

asteko martitzenetik dago horrela. "Jaurlaritzarentzat ez gara lehentasun bat. Horregaitik, herri moduan erreakzionatu behar dugula uste dugu", dio Garmendiak. Ildo horretatik, eskaera zehatza egin diete udaletik herritarrei: lonjetan, txaboletan, etxeetan eta otorduetan bizikideak ez direnekin ez biltzeko.



Udalak hainbat bider eskatu dio Osasun Sailari baheketara masiboa egiteko, baina ez dute erantzunik jaso.

'Prehistoria' eta 'Urbasa' ikuskizunak eskainiko dituzte asteburuan Mallabian

MALLABIA • J.D.

Mallabiko Udalak antolatuta, kultur ikuskizun bi izango dira asteburu honetan Mallabian. Lehenengoak *Prehistoria* du izena eta umeei bideratuta dago. Zapatu honetan izango da, 11:00etan, herriko parkean. Historiaurreko bitzita zelakoa zen erakutsiko diete gazteei: sua zelan egiten zuten, zelan bizi ziren, zelan ehizatzen zuten... Sasoi hartan erabiltzen zuten moduko lantza bat jaurtitzeko aukera ere izango dute. Gehienez lau taldeak egingo dituzte.

Domekan, 12:30ean, Hutsun taldeak eta Ortzi Acosta artistak *Urbasa* ikuskizuna eskainiko dute pilotalekuan. Aforo mugatua izango du. Txalaparta eta dantza uztartzen dituen ikuskizuna da. *Urbasa*-k pertsonaia biren istorioa kontatzen du. Biak orekan eta harmonian bizi inguratzen dituen basoan. Bat-batean, egungo zibilizazioak usteldu duen norbanako bat agertu eta oreka egoera hori hautsi egingo da, gatazka sortzen delako alde bien artean.




Zebrabideak pintatu dituzte semaforoen aurrean, baina ez daude martxan oraindino

IZURTZA • J.D.

Izurtzako trafikoa kontrolatzeko semaforo berriak otsailean ipini zituzten. Hile bi baino gehiago joan dira harrezkero, eta oraindino ez daude martxan. Bizkaiko Aldundiaren ardura da semaforoak martxan ipintzea eta udal arduradunek azaldu dutenez, Aldundiagaz hartu-emanetan ipini dira lanak zelan doazen galdetzeko. Argiteria sistematik semaforoetara doazen lotuneak egitea falta dela da semaforoak oraindino ez ibiltzearen arrazoia. Bien bitartean, semaforo berrien parean zebrabideak pintatu zituzten joan zen astean zehar.

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

 **Pedagogia**
PSE: 63/63

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**
Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Optometria**
PSE: 162/13

Naia
Zabala
Azumendi
11587 kol. zk.



keinu

- Optometriari teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboak • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Podologia**
PSE: 148/13

PAUSOZ Podologia klinika PAUSO

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan. Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

 **Odontologia**
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaestheticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

 **Psikologia**
PSE: 62/11



JON ARRUBARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Zornotzako Munarri gaztetxea husten saiatu direla salatu dute gaztetxeko kideek

Gaztetxeko kideen esanetan, "Ertzaintza eta serralagile bat" eraikina husten ahalegindu ziren eguazten goizean, baina prozesua bertan behera utzi zuten barruan pertsona bat bizi dela eta. Bizilaguna Zornotzako Harrera Taldeko herritar migratzaile bat da eta jakinarazi dute herritarra lanera joan eta etxean inor ez zegoela ahalegindu direla etxea husten

ZORNOTZA • E.H/M.Z.

"Ertzaintza eta serralagile bat" Munarri gaztetxea hustera joan ziren eguazten goizean, gaztetxeko kideek salatu zuten. "Serralagileak serralagile bat aldatu zuen. Gaztetxeko kideak segituan bertaratu ginen eta esan genien ezin zutela barrura sartu, bertan pertsona bat bizi delako. Hori esan ostean, bertan behera utzi zuten husteko prozedura. Orain zer gertatuko den zain gaude", esan dute gaztetxeko iturriek. Etxea husteko saiakeran, "garabi bat" ere bertaratu zela gaineratu dute Munarriko kideek: "Gure susmoa da balkoitik sartu gura zutela eraikinera, eta horretarako eraman zutela garabia". Segurtasun Saileko iturriek esan dutenez, Ertzaintzaren agenteak "agindu judizial bat" dela eta hurreratu ziren gaztetxea hustera. Baina "auzitegi komitibak halakorik egin ezin dela" ebatzi zuela eta, atzera egin zuten.



Eguazten goizean ahalegindu ziren gaztetxea husten.

joandakoan eta etxea hutsik utzitakoan" gertatu zen. "Bizilaguna

"Bizilaguna eraikinetik noiz irtengo zain egon ziren, eraikina hustera etortzeko"

eraikinetik noiz irtengo zain egon ziren, eta horren berri izan zutenean eraikina hustera etorri ziren", azaldu dute. Orain, "10 eguneko epea" dute "herritarra bertan bizi dela justifikatzeko".

Bestalde, Munarri gaztetxeko kide baten aurkako prozesu judizialak aurrera jarraitzen du. Momentu honetan, auzia akordio

bat negoziatzeko bidean sartuta dago.

Zornotzako Gazte Asanbladak Forjarien jauregia okupatu zuen iazko uztailean. Gaztetxe berri bat atontzeari ekin zioten. "Gazteok espazio propio bat eraikitzeko beharrezana ikusi genuen, proiektu sozial bat garatzeko", esan zuten.



Zornotzako Ernai gazte antolakundeak domeka honetan ospatuko du Bizkargi Eguna

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Berez, hurrengo domekan ospatzekoa da Bizkargi Eguna, baina Zornotzako Ernai gazte antolakundeak domeka honetan ospatuko du, Sarek beste ekitaldi bat daukalako deituta datorren zapatarako. Gazte antolakundeak kideek jakinarazi dutenez, 9:00etan hasiko dute Bizkargirako ibilaldia. Erreferendum plazatik abiatuko dira ordu horretan.

Behin tontorrera ailegatuta, Mungiako, Morgako eta Larrabetzuko kideekin batuko dira eta hainbat ekintza egingo dute denek elkarregaz. 12:00etan, belaunaldien arteko mahai-ingurua egingo dute, eta 13:30ean ekitaldi nagusia. Egunari bertso saio batez eta kantaldi batez gazte emango diote amaiera.

Arteari eta zientziari lotutako udako tailerrak antolatu dituzte lurretan

Izen-ematea maiatzaren 3tik 14ra bitartean izango da, HAZen eta Ibarretxe kultur etxean

IURRETA • JOSEBA DERTEANO

Urtebeteko parentesiaren ostean, bueltan dira umeentzako udako tailerrak, Iurretako Udalak an-

tolatuta. Aurtengo gaia artea eta zientzia izango da eta, esaterako, ekimen bat sumendiei buruzkoa izango da. Urkiola Interpretazio

Zentrora egingo duten irteera da beste ekimenetarikoa bat.

Udako tailerrak 3tik 12 urtera arteko umei zuzenduta daude.

Umeak talde elebidun bitan banatuko dituzte. 3tik 5 urtera arteko taldean %70 euskaraz eskainiko dute eta %30 ingelesez. 6 urtetik gorakoek kasuan, alderantziz izango da: %70 ingelesez eta %30 euskaraz. Txanda bi eta 72 plaza daude guztira: uztailearen 5etik 16ra artekoa bat eta uztailearen 19tik 23ra artekoa bestea. Lehenengoaren prezioa 81,32 euro da errolatuentzat, eta 105,72 errolatuta ez daudentzat; bigarrenaren prezioak 40,66 eta 52,85 euro dira, hurrenez hurren. Unitate familiar bereko umeen kasuan, deskontuak egingo dira prezioan.

Izen-emate agiria maiatzaren 3tik 14ra bitartean egingo da zabalik. Izen-emate orria bete eta Herritarren Arreta Zerbitzura edo Ibarretxe Kultur Etxera eraman daiteke.


Osasuna bermatzeko askotariko neurriak hartuko dituzte eta udal arduradunen esanetan baliteke programan aldaketak egotea unean uneko egoeraren arabera.

Garaiko Udalak herriko umeentzako udalekuak antolatzeari ekin dio

GARAI • EKAITZ HERRERA

Uztailean pandemiaren egoera zelakoa izango den jakiterik ez dagoen arren, baina kontuak hobera egin dezakeelakoan, Garaiko Udalak udalekuak antolatzeari ekin dio, "aurrera egin ezean ez delako antolatzeke astirik egongo". Udalak uztaileko lehenengo hamabostaldirako antolatu gura ditu eta herrian errolaturiko ume eta nerabeentzako mugatu gura du zerbitzua. Asmoa ahalik eta osasun "arriskurik txikiena" hartzea dela adierazi du.

Aurrerantzean, udalekuan parte hartzeko interesa duten familien eta umeen zerrenda osatu gura du udalak. Interesdunek 946816393 telefonora edo udala@garai-udala.eus helbidera jo dezakete.



COVID-ak behartutako parentesiaren ostean, bueltan dira umeentzako udako tailerrak.

Jolastokiaren Aldeko Batzordeak Zaldibarko udal gobernu taldearen jarrera salatu du, sinadurak entregatu eta ia urtebetera

Batzordeak 1.033 sinadura aurkeztu zituen 2020ko ekainaren 25ean, eta oraindino erantzunik jaso ez izana kritikatu dute

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Zaldibarko Jolastokiaren Aldeko Batzordeak batzarra eta elkarretaratzea egin zituen eguaztenean, "udal gobernu taldearen jarrera salatuko". Izan ere, "azalpen baten zain" jarraitzen dutela adierazi dute batzordeko kideek. 2020ko ekainaren 25ean, 1.033 sinadura aurkeztu zituzten udaletxean. Sinadura bilketa 2020ko otsailean hasi zuten, baina zabortegiko hondamendiaren eta izurritearen eraginez eten egin zuten kanpaina. Zaldibarko biztanleriaren ia herenak babestu zuen dinamika. Zaldibarko Jolastokiaren Aldeko Batzordeak datu hori nabarmendu gura izan du: "Jasotako kopurua-gaz harro gaude, biztanleen herena baino gehiago da, eta ukaezina da proiektu honek herritarron aldetik duen babes". Hala ere, Jose Luis Maiztegi alkatearen aldetik erantzunik jaso barik jarraitzen dutela azpimarratu gura izan dute. 2020ko abenduko osoko bilkuran, batzordeak "kezka" agertu zuen

eta alkateari azalpen bat emateko eskatu zioten bertaratuek. "Ia lau hilabete geroago, batzar horren zain gaude oraindino. Eta ia urtebete igaro da sinadura guztiak aurkeztu genituela", kexatu dira. "Zelan da posible, hainbeste sinadura aurkeztuta ere, gugaz hartu-emanetan ez ipintzea?" galdetu dute batzordetik.

2018an, Zaldibarko hezkuntza komunitateak *Amesten dugun jolastokia eraikitzen* prozesu parte hartzailea ipini zuen martxan eskola publikoko patioa eta inguruko belargunea atontzeko. Patioa handitzeaz gainera, berau haurren "beharrizantara egokitzea" zen proiektuaren helburua. 2019ko udal hauteskundeetako udal gobernu aldaketagaz proiektua bertan behera geratu zen. "2020ko aurrekontuetan 25.000 euroko partida bat sartuko zutela esan ziguten, baina badakigu zelakoa izan zen urte hori eta ez genuen berba egiteko aukerarik eduki; baina 2021eko aurrekontuetan desagertu egin zen



Eguenean egin zuten elkarretaratzea.

"Ia lau hilabete geroago, alkateak agindutako batzarraren zain jarraitzen dugu"

partida hori", azaldu dute batzordetik.

Batzordeko kideak "penaz"

"Pena handia ematen digu udal gobernu honek herritarrentzat hain garrantzitsuak diren gaiak errespeltu honegatzat. Guk lanean

jarraituko dugu, Zaldibarrek eta zaldibartarrok merezi dugulako", azaldu dute mobilizazioaren amaieran. Batzordeko kideek batzar bat egin zuten protesta ekitaldiaren aurretik. Aurrerantzean ere, erantzunik jaso ezean protestekin jarraituko dutela iragarri zuten.

Abadiñoko Udalak Traña-Matienako eskolako berokuntza sistema berrituko du udan

Obra horretarako, 250.000 euroko aurrekontua aurreikusi du udalak

ABADIÑO • A.M./J.G.

Abadiñoko Traña-Matienako eskolako berogailu sistemak arazoak eman ditu azken aspaldian. Egoera horren aurrean, Abadiñoko Udalak 250.000 euroko diru atala ipini du arazo hori konpontzeko. Udal gobernuak azaldu duenez, eginiko azterlanaren arabera "soluziorik onena eta eraginkorrena biomasaren egungo ekoizpena kondentsazioko gas naturaleko galdarekin osatzea da". Obra horiek uda sasoiaren egitea aurreikusi dute, hamar asteko epean.

Horrez gainera, Abadiñoko udalak iragarri duenez, eraikinari eusten dioten zutabeak konpontzen hasiko dira datozen asteetan.

Datozen asteetan eraikinari eusten dioten zutabeak konpontzen hasiko dira

EH Bilduren kritikak

Eguazteneko udalbatzan, EH

Bilduk gogor kritikatu zuen Traña-Matienako Haur Hezkuntzako eraikinaren egoera. Koalizio subiranistak dio berogailu sistema eta zutabeak konpontzea ez dela nahikoa. Eskola Kontseiluak konpondu beharreko arazoak zehaztuz, udalera igorri zuen txostena aipatu du Mikel Urrutia EH Bilduko zinegotziak. "Fatxadako hezetasuna, patioa lurzorua, instalazio elektrikoa, argiteria arazoak...", azpimarratu ditu oposizioak.



Traña-Matienako eskola.

arizmendi
ikastola PRO

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

ATE IREKIAK ONLINE



943 77 20 25 • www.arizmendipro.eus/eu/ate-irekiak/ • arizmendi@arizmendi.eus

Zure Lanerako Bidea

Maiatzak 4

- GIZARTE ETA KIROL ANIMAZIOAREN IRAKASKUNTZA
- MIKROINFORMATIKA

18:00etan

Maiatzak 5

- ERIZAINZAKO ZAINZA OSAGARRIAK
- OSASUN LARRIALDIAK

18:00etan

Maiatzaren Lehenean langileen aldarrikapenak kalera aterako dituzte

Langileen Nazioarteko Egunerako manifestaziora eta elkarretaratzeetara deitu dute eskualdean



LABek kotxe karabana antolatu zuen iaz.

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Iaz pandemia dela-eta langileek Maiatzaren Lehena etxean igaro behar izan zuten arren, aurten berriro ere kalera irtengo dute. Durangaldeko kaleak aldarritz betetzea aurreikusten dute sindikatuek.

'Dena dugu irabazteko' lemapean, LABek eta Ernaik manifestaziora deitu dute. 12:30ean hasiko da. Aurretik, 11:00etan, gazteen lan eskubideen gida aurkeztuko dute. Aurkezpen hau ere Andra Mariko elizpean egingo dute.

Bestalde, Durangon, Durangaldeko Kontseilu Sozialistak ere ekitaldiak antolatu ditu Langileen Nazioarteko Egunerako. 'Oroimena eta langile antolakuntza' lemapean, Durangaldeko Kontseilu Sozialistako kideek ekitaldi bi egingo dituzte. 11:00etan, Fray Juan Zumarraga institutuan, Langileen Autodefentsa Sarea aurkeztuko dute. Horren ostean, 12:30ean, elkarretaratzea egingo dute Durangon, Santa Anako plazan.

Hiriburuetan deialdiak

ELA eta CCOO sindikatuek hiriburuetan elkartzeko deia egin dute. Hori horrela, Durangaldeko ELAk eta CCOOk Bilbon batzeko deia egin dute.

Politikan

Mireia Elkoroiribe
EAJ



Esatetik egitera...

Duela astebete irakurri genuen aldaketa ez dela lortzen hauteskundeetako garaipen batekin edota erakundeetan gobernatzearekin bakarrik. Bada, Excusatio non petita...

Jakina, gobernura iristean gain, planifikatu eta kudeatu egin behar da! Baina ia legealdia erdian gaude, eta Udal-gobernuak iragarki handiak egin dituen arren, esandakotik gertaerara tarte handia dago. Atzoko Osoko bilkuran bertan ikusi genuen adibidea, ostalaritzari zuzendutako laguntzen eztabaidan.

Ezer baino lehen, Durangoko EAJ, COVID delakoaren erruz gaizki dauden ostalaritza, denda, enpresa txiki eta pertsonen laguntzak ematearen alde dago. Hala esan genuen iaz Durangon ekonomia suspertzeko proposamenak aurkeztu genituen eta Ekonomia Suspertzeko Plana babestu genuen.

Arazoa da 2020ko ekainean zalaparta handiz Plan hori onartu eta iragartzeaz gain, bete egin behar dela. Eta zain gaude.

Asko izan ziren iragarritako neurriak, ez hainbeste benetan garatutakoak

Plan horretan iragarri zen 2020an ekonomia suspertzeko laguntzetarako 500.000 € emango zirela, baina 190.000 € baino ez ziren eman. Gainerako zenbatekoarekin beste laguntza-lerro bat aterako zela iragarri zen, baina lau hilabetera, 175.000 €-ko partida onartu da, soilik ostalaritzarako. Zergatik ez dena? Zergatik ostalaritzara bakarrik?

Eta hori ez da itxaroten gauden neurri bakarra. Zer gertatu da babes-materialen diru-laguntzekin? Eta behin ere batzartu ez den tokiko sare ekonomikoa suspertzeko mahaiarekin?

Asko izan ziren iragarritako neurriak, ez hainbeste benetan garatutakoak. Durangon, hitzetik ekintzara, tarte bat.

Durangaldea asteen

Durangoko Udalak plaka futboltaikoak ipiniko ditu hainbat eraikin publikotan

Durango | Durangoko Udalak lau proiektu egingo ditu plaka futboltaikoen bitartez herriko udal eraikin batzuk eguzki-energiak hornitzeko. Energia kontsumo handia dela-eta, Landako Erakustazokan, Landakoko Igerilekuetan, Landako Ikastetxean eta Ezkurdiko pilotalekuan plaka horiek ipintzeko proiektuak landuko ditu udalak datozen hileetan.



Zornotzako Udalak emakume migratzaileen topaketa antolatu du gaur arratsalderako

Zornotza | Zornotzako Berdintasun Zerbitzuak emakume migratzaileen topaketa antolatu du gaur arratsalderako. Udaltik azaldu dutenez, topaketa kolektiboa ikusarazteko eta euren kezka, zalantza eta beharrianak bertatik bertara ezagutzeko izango da. Topaketa Nafarroa Zentroko beheko solairuan izango da, 17:00etan, eta haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

Pilota eta kirol aniztasun udalekuetan apuntatzeko epea maiatzaren 31ra arte

Durangaldea | Pandemia dela-eta iaz bertan behera utzi behar izan zituzten arren, bosgarren pilota udalekuak antolatu dituzte uda honetarako. Udaleku hauek eginda, esku pilota hobeto ezagutzea eta beste hainbat kirol uztartzea izango dira asmoa. Ekainaren 28tik uztailaren 23ra bitartean egingo dira udalekuak, eta 2008tik 2014ra bitartean jaiotako gazteentzat izango dira. Izen-ematea egiteko, 627 141 845 telefono zenbakira deitu edo tornosolotrinketea@gmail.com helbidera idatzi beharko da.



Durango 1936k aktibatu du Gernikako bonbardaketa oroitzeko sirena

Durango | Apirilaren 26an 84 urte bete ziren Alemania naziko eta Italia faxistako hegazkinak Gernika bonbardatu zutela, eta Busturialdeko udalerrian hainbat ekitaldi egin zuten hori gogora ekartzeko. Durango 1936 elkarteak Gernikako bonbardaketa oroitzeko ekitaldietan parte hartu zuen. Astra arma-lantegiko sirena izandakoa aktibatu zuten, hegazkinak zetozela abisatu zuen sirenetariko bat. "Lobak elkarteak Gernikako bonbardaketa bizi izan zutenen ilobek osatzen dute. Ekitaldiak antolatzen dituzte memoria historikoa lantzeko eta bonbardaketa oroitzeko. Urtero gonbidatzen dute baten bat Astrako sirena izan zena aktibatuzko, eta aurten guri egin digute gonbitea", azaldu zuen Andoni Barreñak.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK**

ARGITARATUKO Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

BURUARI KLIK!



NOR DA?

Deskribapenari jarraituta,
bila gabiltzan pertsona
topatuko duzu.



- 1.- Emakumea da
- 2.- Ez du betaurrekorik
- 3.- Ile luzea dauka
- 4.- Beltza du ile kolorea
- 5.- Azal kolore zurikoa da
- 6.- Ile kizkurra dauka

LETRA ZOPA


Topatu hamar lanbide hauek letra zopa honetan.

I R T D Q T O O C O V G C N
M A R K I T E K T O A X T F
Z K M U S I K A R I A J J U
Y A S U H I L T Z A I L E A
L B K **M E D I K U A** M S M D
O O Z F R R D D L B U U A F
R K X A I Y P S T E C K R N
E A J F Z D Q K R L Y A G B
Z T X Q A P W L D T L L O Z
A U E R I R S S W Z Y D L C
I A M J N V P I W A U A A H
N R L N A N L J V I W R R Z
A P B N I H X Z F N O I I B
Z J S E Y N I V E A M A A V



ASMAKIZUNA

Ordenagailuko pasahitza ahaztu zaio. Lagunduko diozu asmatzen beheko pistei jarraituta?



- 1.- Bere neba nagusiaren jaiotza urtea da.
- 2.- Bera 1989an jaio zen.
- 3.- Bere ahizpa txikiagaz hiru urteko aldea dauka
- 4.- Bere ahizpa txikiak eta bere nebak zazpi urteko aldea dute euren artean.

ZEIN DA?

Beheko aukeretatik zein dagokio irudiaren hutsune zuriari?



LABIRINTO A

Labirinto honetan egin bidea intsektuei jarraituta.

MATEMATIKA

Nork egin du erosketarik garestiena?



Prezioak unitateka dira



0,10€



1,50€



4,00€



0,50€



0,20€



2,50€



3,25€



3,50€



2,00€



1,00€




1,40€



4,25€

MARGOTU

Zenbat animalia ikusteko gai zara?
Margotu paisaia gurago duzun moduan.





2. atala

'Mehatxua'

Itsu-itsuan erori naiz
mehatxuen mundu
ilunean.

APIRILAREN 30EAN
'TTAP' ALDIZKARI
DIGITALEAN

HAU EZ DA NIRETZAT

Beste guztiontzat den websaila.

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero zure
mugikor edo tabletan.

Hemendik ere deskarga dezakezu: ttap.eus

DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n



Instalatu orain!



Jantzari

DOKUMENTALA DURANGO :: Maiatzaren 13a

'Jantzari' dokumentala Durangoko Zugaza zineman

Datorren maiatzaren 13an *Jantzari* dokumentala eskainiko dute Zugaza Zineman. Iurretako dantza taldearen, Bideografik ekoiztetxearen eta ANBOToren arteko elkarlanari eskerrak sortutako ikus-entzuneakoak dantza tradi-

zionalaren garapena erakusten du. Zugazako leihatilan, zine aretoko makinan edota zinezugaza. sacatuentrada.es webgunean hartu daitezke sarrerak dokumentala ikusteko. Emanaldiak 17:00etan eta 19:00etan izango dira.

Apirilaren 30ean

ABADIÑO musika

Zea Mays, 19:00etan, Traña-Matienako eskoletan.

DURANGO dantza

'Hnuy Illa' (Kukai dantza taldea), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

ELORRIO dantza

'Dead' (Lasala), 19:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA bakarrizketa

'Euskal Herriatik kanpo' (Mikel Bermejo) 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA bertso jaialdia

Durangaldea Uztaberitzen bertso zirkuitua: Alain Barañano, Beñat Alonso, Bittor Altube, Irune Basagoiti eta Iruri Altzerreka, 19:00etan, Etxanoko frontoian. Gai jartzailea: Ander Gerrikaetxebarria.

Maiatzaren 1ean

ABADIÑO musika

Puro Relajo, 19:00etan, Traña-Matienako eskoletan.

Maiatzaren 2an

ABADIÑO antzerkia

'Pinocchio' (Gorakada Teatro), 12:00etan, Errota kultur etxean. Bigarren emanaldia ere eskainiko dute, 17:00etan.

ABADIÑO musika

Los 5 Bilbainos, 19:00etan, Traña-Matienako eskoletan.

Maiatzaren 6an

ZALDIBAR dokumentala

'Dardara', 18:00etan, Liburutegi Zaharrean.

Maiatzaren 7an

ELORRIO antzerkia

'Cabezas de cartel' (Perigallo Teatro), 20:00etan, Arriola antzokian.

Maiatzaren 8an

BERRIZ bisita

Aiarbi baserrira bisita gidatua Berbalagunen eskutik, 10:00etan, elizaren parean. Izena emateko: 639 400 786 telefono zenbakira deituta.

BERRIZ lehiaketa

XII. Kaleko Pintura Lehiaketa. Lanak 09:00etatik 10:00etara zigilatuko dira, kultur etxean. Gaia librea da eta lehiaketa 16 urtetik gorakoei dago zuzenduta. Sariak: 1.ak 600 euro irabaziko ditu, 2.ak 500 eta 3.ak 400. Lehenengo sailkatutako berrizarrak 300 euro irabaziko ditu.

BERRIZ antzerkia

'Ese no!' (Banarte), 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia

'Maitasunaren itxiera' (Eneko Sagardoy eta Miren Gaztañaga), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

OTXANDIO bertsoak

Durangaldea uztaberitzen bertso zirkuitua: Igor Galarza, Aitor Bizkarra, Ander Sarriugarte eta Maialen Lujanbio, 18:00etan, Andikona plazan. Gai jartzailea: Bertso eskolako kideak. Sarrerak bertan, 17:00etan.

ZORNOTZA antzerkia

'Crusoe' (Markeliñe Konpainia), 18:00etan, Zornotza Aretuan.

Maiatzaren 9ra bitartean

DURANGO erakusketa

'Abstrakzio poetikoa' (Javier Urquijoren lanak), Arte eta Historia Musean.

IURRETA erakusketa

'Afrika ez da beltza, mila kolore ditu' (Itziar Irazabal), Oreka tabernan.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Kraston ikastetxea: munstroen eskola**
barikua 30: 17:00
domeka 2: 17:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **Druk**
zapateria 1: 19:00
domeka 2: 19:00
astelehena 3: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **Nadie**
barikua 30: 19:30
zapateria 1: 17:30/19:30
domeka 2: 17:30/19:30
astelehena 3: 17:30/19:30
martitzena 4: 19:30
eguztzena 5: 19:30

• **Police**
barikua 30: 19:30
zapateria 1: 19:30
domeka 2: 19:30
astelehena 3: 17:30/19:30
martitzena 4: 19:30
eguztzena 5: 19:30

• **Crónica de una tormenta**
barikua 30: 19:30
zapateria 1: 19:30
domeka 2: 19:30
astelehena 3: 17:30/19:30
martitzena 4: 19:30
eguztzena 5: 19:30

• **Guardianes de la noche. Tren infinito**
zapateria 1: 17:00
domeka 2: 17:00

• **Sablehortz kapitaina eta diamante magikoa.**
zapateria 1: 17:30
domeka 2: 17:30

:: Zornotza ARETOA

• **Druk**
barikua 30: 19:00
zapateria 1: 19:00
domeka 2: 19:00
astelehena 3: 19:00

• **¡Upsss! ¿Y ahora dónde está Noé?**
zapateria 1: 12:00
domeka 2: 12:00



Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

 **anboto**

“Umeei, sortzerakoan, arauak ezartzearen edo bidea markatzearen aurkakoa naiz”

Eider Eibarrek 'Ez dakit marrazten' liburuko hainbat irudi original batu du Arteka liburudendan ipinitako erakusketarako



Eider Eibar
Marrazkilaria
ZORNOTZA | 1980

rriz beteta daude, eta iruditzen zait unibertso magiko paralelo bat direla. Horrelako testuinguru batean nire marrazkiak ikustea oso polita iruditzen zait, baita umeentzat ere. Liburura ailegatu aurretik marrazkiak zelakoak diren ikusi dezakete horrela.

Joseba Sarrionandiaren itzulera iragrtzen zuen ilustrazioa egin zenuen Berria egunkariko azalean. Zelan jasotzen da horrelako mandatu bat? Errespetu osoagaz, urduritasun apur batez, eta baita ondo pasatzeko gogoagaz ere. Ez da lehenengo aldia Berriarako horrelako enkargu bat egin dudana. Joan Mari Torrealdairena egin nuen, eta Eusko Legebiltzarrerako iazko hauteskundeetan lehendakarigai

“**Sarrionandiaren itzulerako ilustrazioa egitea momentu historikoa da, baita nire marrazkigintzan ere**”

MARRAZKIGINTZA • ARITZ MALDONADO
Apirilaren 23an Liburuaren Eguna ospatu zen Durangaldean ere. Juul literatura hauteskundeen sari bana-keta ere egin zen, eta bertan Eider Eibar aukeratu zuten 'Ez dakit marrazten' liburuagaitik. Zornotzarrak hamaikagarren urtea du literatura hauteskundeetako hautagaien artean. 'Barrukoa' liburuagaz egin zuen legez, kasu honetan ere Eibar arduratu da marrazkiez eta testuez. Durangoko Arteka liburudendan erakusketa atondu du, eta marrazki originalak ikusi ahalko dira bertan. Egun, 79. liburua izango denerako ilustrazioak egiten dabil Eibar, besteak beste. Bideo bidezko ani-

mazioan ere hasi da. 'www.kokoak.eus' atarian bere azken proiektuak bisitatu daitezke.

Zergaitik 'Ez dakit marrazten'?

Tailerrak eskaintzen ditut eskolatan, udal liburutegietan eta ludoteketetan, eta beti dago umeren bat saioa hasi orduko marrazten ez dakiela dioena. Saioa amaitzen denerako ez du hori esaten jada. Egote da baten bat trabatu egiten dena beharbada, edo marrazkiren bat irteten ez zaiona, baina guztiek marrazten dute. Azken finean, umeak dira, eta marrazkiekin oso familiarizatuta daude. Errotuladoreak hartu eta marraztu, horixe egin

behar dute. Gure saioetan ez ditugu marrazkiak epaitzen. Epaitua izateko beldur handia dago umeen eta baita helduen artean ere, besteen iritziak edo norberak bere buruari ezarrira mugek eragin handia dute, gauzak 'ondo' edo 'txarto' egiten diren... Gure saioetan ez dugu horrelako lengoaiarik erabiltzen. Umeek marraztu dezaten gura dut, konturatu daitezen emozioak eta sentimenduak marrazkien bitartez adierazi ditzaketela, marrazkiok onak zein txarrak izan; sortzeak berak ere poztasuna pizten die. Baina badirudi gaur egun bidea markatu egin behar zaiela, arauak behar dituztela sortzerakoan, eta ni horren

aurkakoa naiz. Proposatu ditzaket teknikak, edo pistak eman, baina norberak erabaki behar du zer egin. **Artekan daude ikusgai bertako ilustrazio originalak.**

Arrazoi bigaitik egin dut erakusketak Artekan. Alde batetik, liburuak marrazkiak erakusteko. Liburuan ikusi daitezkeen berdinak dira, baina beste modu batera ikusi daitezke horrela, trazoak eta arkatz markak, besteak beste. Gainera, eduki asko dituzten eta asko kontatzen duten marrazkiak aukeratu ditut erakusketarako. Bestalde, niretzat oso garrantzitsua da Artekan egitea erakusketa, horrelako liburudendek magia dutelako; liburu zoraga-

bakoitzaren erretratoa ere egin nuen. Joseba Sarrionandiarena enkargu berezia izan da, ez nekielako zertarako zen (barrez). Ea egin nezakeen galdetu zidaten, eta baietz esan nuen. Errespetu osoagaz, baina beldurrik barik. Eta gero jolastea izan da. Alde batetik, antzekotasuna topatzen hasi nintzen, ahoan, begiradan, keinu konkretu batzuk irudikatzen ahalegindu nintzen, jendeak pertsona identifikatzeko, eta koloreekin eta formekin nire ikuspuntua ematen ahalegindu naiz. Aurpegiaren aurretik pasatzen diren hosto batzuk egin nizkion; atzean ilun zegoen, eta horrela ematen du ezkututik argira jausi egiten duela. Kolore aldetik, urdinak erabili ditut, Kubaren eta Euskal Herriaren arteko distantzia markatzen duten zerua eta itsasoa irudikatzen. Kuriosoa da, Idoia Beratarbidek ere egin du ale horretarako Sarrionandiaren beste ilustrazio bat, eta kuriositatez kolore paleta berdina erabili genuen. Momentu historikoa bat izan da, baita nire marrazkigintzan ere.

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

Los penúltimos días de la humanidad

Solasaldia liburuaren inguruan
Ander Berrojalbiz, egileetako batekin

Maiatzaren 6an, 19:00-etan. *Edukiera mugatua egongo da.

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

“Hiruzpalau urte behar izan ditut orein bati bila nenbilen argazkia atera ahal izateko”

Jon Batiz Gorospe zornotzarrak bere lehenengo erakusketa ipini du Zelaieta zentroan azken urteetako argazkiekin



Jon Batiz Gorospe

Argazkilaria

ZORNOTZA | 1987

ARGAZKILARITZA • ARITZ MALDONADO
Jon Batiz Gorospe zornotzarraren argazkiek osaturiko 'Basabizitzaren argazkilaritza, Zornotzatik mundura' erakusketa ikusgai egon da azken asteetan Zelaieta zentroan. Aske bizi diren animaliei ateratako argazkiek osatzen dute erakusketa, Zornotzako suge bati ateratakoak zein Indiako tigre bati ateratakoak, esate baterako. Txikitatik izan ditu

gustuko natura eta argazkilaritza, eta azken urteetan "serioago" ekin dio argazkiak ateratzeari. Munduan zehar ibili da animalia askeei argazkiak ateratzen.

Zelakoa da animaliekin lan egitea? Pazientzia handiko lana da. Behin Poloniara joan nintzen, Bielorrusiagaz muga egiten duen aldera, eta ordu askoko bidaia

egin nuen han bertan ere; argazki bakarra ekarri nuen handik. Argazkien atzean ordu asko eta asko daude. Teknika kontua ere bada, noski, baina lanketa da garrantzitsuena, datuak biltzea. **Zeintzuk dituzu argazkirik gustukoena?**

Argazki biri maitasun berezia diet. Oreinarena da bat; bizitzan ordurik gehien kendu didan ani-

malia izan da. Hiruzpalau urte behar izan ditut bila nenbilen argazkia ateratzeko. Kotxean eta basoan ordu asko egin nituen hori ateratzeko. Bestea tigrearena da. Txikitik tigre baten poster bat alboan nuela lo egiten nuen. Dokumentaletako animalia bat zen niretzat, eta odisea baten ostean, lortu nuen argazkia ateratzeko; lagun katalan batez berba

egin ostean, Indiako kontaktu bat lortu nuen; abioia hartu eta hara joan ostean, hiru ordu egin nituen ingelesez ez zekien taxista batez. Bost egunean egon nintzen oihanean, eta azken eguneko azken orduan lortu nuen argazkia ateratzea.

Indian bost egunez egon nintzen oihanean, eta azken eguneko azken orduan atera nion argazkia tigreari

Zein animalia falta zaizu argazkien harrapatzeko?

Hartz zuria. 2020an espedizio bat egiteko nintzen, Artikora, baina badakigu zer gertatu zen 2020an. Gehien motibatzen nauten animaliak megafauna lez ezagutzen direnak dira, ugaztun handiak. Hartz animalia izugarria da, ez da nire lehentasuna izan, baina horrela suertatu da. Kanadan hartz beltza harrapatu nuen argazkian, Eslovenian hemengo, arrea, eta Indian ere ikusi nituen. Eta hainbeste ikusi eta gero, orain zuriari egin gura dizkiot argazkiak. Ez dakit nik bilatu dudan zerbait den, edo horrela irten den, baina bizitza bera horrelakoa da. Hegaztiek ez naute bereziki erakarri inoiz, baina azken urteko egoera dela-eta, hegaztiei makina bat argazki egin dizkiet.

Gai librean

Kriston martxa dabil!

Joan zinenean besteko dantza sortu duzu itzuli zarenean. Ez zara makala, gero! Dantza bera, ordea, asko aldatu da. Ez dira alferrik pasa lau hamarkada. Ez dakit altxorren mapa besapean ekarri duzun, baina guk, denborak aurrera egin duen bitartean, zure perla eta diamanteak ederki gozatu ditugu: marinel zaharrak eta kartzelak, garai baten akordua eta izoztutako laguna. Ulisesen itzulera hemen da.

Detale poetikoa litzateke igande batez bueltatzea, baina tira, pentsatzen hasiak ginen Martin Larralderen antzera ez zinela sekula itzuliko. Afaltzera azaldu haiz, eta on dagiala!

Ibaizabalgo ur uherra desagertu da, eta errotondek beste itxura bat eman diote Ijorretari. Mundua alda-



Ainhoa Urien Telletxe
Idazlea

Detale poetikoa litzateke igande batez bueltatzea, baina tira, pentsatzen hasiak ginen Martin Larralderen antzera ez zinela sekula itzuliko

Kolosala izan zitekeen, baina apala eta elegantea izan da. Hainbat eta hainbat lagun liburu kuttuna izan den Narrazioaken sartzeko modukoa

tu da, bai, baina euskarak jarraitzen du gure territorio libre bakarra izaten.

Kolosala izan zitekeen, baina apala eta elegantea izan da. Hainbat eta hainbat lagun liburu kuttuna izan den Narrazioaken sartzeko modukoa. Oinarri batetik abiatuta hamaika mundu eraiki dituzu, eta mundu oso bati erregalatu dizkiozu, oso-osorik.

Izuen gordeleketan barrena aritu gara zer edo zeren xerkan. Zeren bila? Erantzunen bila agian. Nondik gatozen eta nora goazen jakin guran. Ni ez bainaiz hemengo, baina nongoa naiz ba?

Mende oso bat iragan dezaket zuen ondoan koplaka. Memoria gara, memoria ala ia ezer ez: hau da akorduan dudana, hau da Sarrionandiarendik jaso dugun ondasun guziaren zati ttipi bat.

“Taldeko txapelketa irabazi genuenean, lehenengo entrenamendutik sentitu nuen konexio berezi bat geneukala”

Sara Sendino erreferenteetariko bat da Durangaldeko gimnastika erritmikoan; 26 urte gaz klubeko beteranoa da; hainbat txapelketa irabazi du eta gimnasta gazteen ispilu da



**Sara Sendino
Mouliet**

Gimnastika erritmikoa egiten du Uztai taldean

MAÑARIA | 1994

GIMNASTIKA ERRITMIKOA • J. DERTEANO
Kirola bizitzeko modu bat baino gehiago dago. Batzuentzat helmuga da inporta duen bakarria, eta emaitzak bereizten ditu arrakasta eta porrota. Beste batzuentzat, ostera, helmugan barik hara heldu arteko bidean dago zorientasuna. Bigarren klub horretako da Sara Sendino. Eta filosofia horregaz Euskadiko hainbat txapelketa irabazi du.

Zelan zaletu zen mañariar bat gimnastika erritmikoan?

Txikitan hasi nintzen, zortzi urte-

gaz. Landako eskolan ikasten nuen eta klaseak han ondoan ematen zituztenez, probatu egin nuen eta gustatu egin zitzaidan. Judoa ere probatu nuen, baina ez zitzaidan hainbeste gustatu.

Zure ibilbidean, hainbat bider irabazi duzu Euskadiko Txapelketa; birritan taldeka eta behin bakarka. Azken hori izan da zure lorpenik garrantzitsuenak?

Bai. Orain bost urte irabazi nuen, Gasteizen. Sorpresa itzela izan zen. Aparatu bigaz aritu ginen, mazoe-kin eta xingolagaz. Mazoe-kin bigarren geratu nintzen eta xingolagaz

laugarren. Euskadiko txapelketa aparatu bietako puntuazioak batura erabakitzen zen. Nik ez nuen konturik egin. Uste nuen nire emaitzak ez zirela nahikoa izango. Mazoetan bigarren geratuta pozarren nengoen jada. Banuen domina bat. Eta epaileek puntuaketak jakinarazi eta neure burua lehenengo ikusi nuenean, ezin nuen sinistu!

Mazoak dira zure erreminta gustukoena?

Bai. Betidanik gustatu izan zaizkit. Nire aparatu kutuna dira. Xingola ere gustatzen zait. Baloigaz eta uztaigaz gehiago kostatu izan zait.

Taldeka irabazitako txapelketa bien zer gomuta duzu?

Orain lau eta hiru urte irabazi genituen txapelketa biak. Taldeko nagusia nintzen eta ni baino hiru urte gazteagoak ziren hainbat igo ziren talde nagusira. Lehenengo momentutik oso giro ona sortu zen gure artean. Lehenengo entrenamendutik bertatik sentitu nuen konexio berezi bat izan genuela.

Zein abestiren inguruan landu zenuten zuen koreografia?

Tina Turner-en *Proud Mary* eta Michael Jacksonen *They don't care about us* abestiekin irabazi genituen txapelketak. Miren Barturen eta Janire Alboniga gure entrenatzaileek aukeratu zituzten abestiak. Hasi-eratik asko gustatu zitzaizkigun.

Artista bien mugimenduak gehitu zenituzten zuen koreografiara?

Bai. Nik, esaterako, ez nituen Michael Jacksonen mugimenduak ezagutzen. Niretzat erronka bat izan zen; Michaelengan ohikoak ziren pauso txiki eta bizi horiek ez zaizkit ondo ateratzen, eta apur bat aztoratuta ibili nintzen hor, denak ikasten (barrez). Baina, tira, pazientziagaz lortu nuen.

Kanpotik begiratuta, gimnastika erritmikoak kirol sakrifkatua ematen du.



Zer puntutaraino da horrela?

Beste edozein kirolen antzerakoa da. Norberak erabakitzen du zenbat sakrifkatu gura duen edo zenbat emateko prest dagoen. Ondo pasatzera bazoaz, hobbi moduan hartzen baduzu, ez da exigentea. Baina lehiaketetan zentratzen bazara eta gorantz egin gura baduzu, gogorra da. Baina beste kirol denetan lez. Goraino heldu gura duenak asko entrenatu eta norbere burua asko zaindu behar du.

Zuk non ipini izan duzu langa?

Niretzat hobbi bat izan da beti. Oso ondo pasatu izan dut taldeko dantzak egiten. Barre asko egiten dugu. Sekula ere ez naiz haserretuko zerbaitek txarto irten duelako. Lehiaketa bat amaitzen dugunean eta horra heltzeko egindako bidea erreparatzean, "itzela izan da, arratsalde denetan ondo pasatu dut" pentsatzen dut eta niretzat ez dago hori baino sari hobirik.

Gimnasten artean batez besteko adina oso baxua izaten da. 26 urte gaz beterano kontsideratu zaitzakegu?

Bai (barrez). Uztai taldean, hurrengo zaharrenak 22 urte ditu. Atera kontuak hortik. Nire belaunaldiko gimnastek orain sei bat urte utzi zuten kluba. Aldiro, belaunaldi berrien artean tokia egitea egokitzen zait. Gero, eliteko gimnastika profesionala dago, errusiarrak eta antzerakoak. Maila hori oso exigentea da eta askok ezin izaten dute euren ibilbidea gura beste luzatu, lesioengatik.

Uztai klubeko gazteek ispilutzat hartzen zaituztela sentitzen duzu?

Batzuetan bai. Sarritan, Durangotik nabilenean, klubeko ume askok agurtu egiten naute. Grazia egiten dit. Ezagutu egiten naute eta ilusioa egiten dit. Nagusiagoe-kin, ostera, urteetan ikasitako irakasten ahalegintzen naiz. Denok ditugu gure trikimailuak eta sekretu txikiak. Esperientziak ematen dizun zerbait da.

Gimnastika erritmikoan jarraitu ezin dudala ikusiko banu, pena handia hartuko nuke

Noiz arte jarraitzeko asmoa duzu?

Lana eta entrenamenduak uztertzea ez da erraza. Batzuetan malabarismoak egin behar dira ordutegiak bateratzeko. Baina ez dut utzi gura. Denboraldi bat amaitzen denean, hurrengoan ere jarraitzea izaten da nire desioa. Jarraitu ezin dudala ikusiko banu, pena itzela hartuko nuke.

Covid-ak asko astindu ditu kirol klubak. Zein da Uztainen egoera?

Kolpea hartu dugu. Ume askok utzi dute kluba. Ea berriro animatzen diren. Aurtengo izen-ematea hasita dago. Gure webgunean (uztaitaldea.com) jaso daiteke informazioa, eta astegun arratsaldetan Landako Kiroldegian egoten gara.

urtxintxa jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

Arrike Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

MAKALLAU saltsan

saltsan
KONFIANTZAN

MAKALLAU SALTSANen bakailaorik onena eta osagai guztiak eskaintzen dizkizugu zure lapikoak arrakasta handia izan dezan: piper txorizeroa, baratxuri gorria, kalitate handiko olio eta.

Bakailao kozinatua ere aurkituko duzu, mota guztietan: pil-pil, bizkaitarra, ajoarrieroa, krocketak, bakailaoz betetako piperrak, etab.

Eta ez galdu Nafarroako kalitate-labeldun kontserbako produktuak: Zainzuriak, orburuak, piperrak, etab.

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri: 688 773 205 / 688 734 329

Garaipena lortuta, mailari eusteko borrokan dago Durangoko Kulturala

Asteburu honetan laugarren jardunaldia jokatuko dute Durangon, Tabiran, Tolosaren aurka



Durangoko Kultural taldeko jokalaria.

FUTBOLA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Durangoko Kulturalako talde nagusia hirugarren mailari eusteko borrokan dabil. Talde durangarrak denboraldi irregularra darma eta horrek jaitsiera saihesteko borrokan sartu ditu jokalaria. Durangarrek porrot bategaz hasi zuten jaitsiera faseko lehenengo partidua, eta taldeko zuzendaritza berriak, Bigen Bizkarra abadiñarrak gidatutakoak, Jon Larreategi ordura arteko entrenatzailea kargutik kendu eta Jon Gonzalez fitxatzea erabaki zuen.

Apirilaren 14an, talde durangarreko jokalariek lehenengo entre-

namendua izan zuten Jon Gonzalezen gidaritzapean, eta asteburu horretan bertan berdinketa lortu zuten Balmasedaren aurka. Lehe-

Durangarrek porrot bategaz hasi zuten jaitsiera faseko lehenengo partidua

nengo entrenamendu horretan, Kulturalako entrenatzaileak aitortu zuen gogotsu zetorrela taldearen "dinamika aldatzeko" eta "jaitsiera ekiditeko", eta badirudi

Gonzalez Durangoko Kulturala indarberritzen dabilela. Joan zen asteburuan, esaterako, bolada onari jarraipena ematea lortu zuten eta garaipena eskuratu zuten Aurrera Ondarroari gol bi sartuta.

Asteburu honetan, laugarren jardunaldia jokatuko dute Jon Gonzalezen mutilek. Durangon jokatuko dute, Tabiran, 18:15ean. Tolosa izango da aurkaria. Mailari eusteko borrokan dabilzan taldeen artean, lehenengo postuan dago Tolosa. Durangoko Kulturala, oster, hirugarrenean, lehenengoak baino lau puntu gutxiagaz.

Murgoitio azpitxapeldun Espainiako txapelketan

Korrikalari elorriarrak zilarrezko domina irabazi du mendi lasterketen txapelketan 23 urtez azpiko mailako estreinaldian. 2019an txapeldun izan zen juniorretan

ATLETISMOA • J.D.

Asteburuan mendi lasterketen Espainiako txapelketa lehiatu dute Kantabriako Liencres herrian, 16 kilometroko ibilbide gorabeheratsuan. Hantxe aritu dira Durango Kirol Taldeko (DKT) korrikalaria. Gontzal Murgoitio azpitxapeldun geratu da 23 urtez azpiko mailan: 1.05.47. Uztailean 20 urte egingo dituen korrikalaria aurten estreinatatu da kategoria berrian. 2019an Espainiako txapeldun geratu zen

junior mailan. Bere taldekidea den Oihana Kortazar elgetarrak ere podiumera igo zuen, hirugarren sailkatuta.

Bidezabal bikain

Bestalde, Bidezabal klubak bikain hasi du Espainiako atletismo liga Lehenengo Mailan. Elx-eko (Alacant) jardunaldian bigarren amaitu zuen eta Ohorezko Mailara igotzeko aukera du ekainaren 12an lehiatuko den finalean.



Gontzal Murgoitio, Liencres herrian egindako proba amaitu eta gero.

Jokaldia

Hasi da zirkua!

Pandemia garaiko lasterketak bueltan dira eta adibide onenak azken asteburu bietan izandakoak dira: Mendiko kirolen federazioaren (FEDME) kopako lehenengo proba Sevillan lehiatu zen, Peñon Extrem lasterketa (21,5 km eta 2000m+). Maila handia erakutsi zuten euskal korrikalariek bertan. Oihana Kortazar izan zen garaile eta aipatzekoa da lehen 5 emakume sailkatuetatik 4 euskaldunak izan zirela. Gizonetan antzeko zerbaite gertatu zen, Asier Larruzeta bigarren eta Beñat Katarain bosgarren sailkatu baitziren. Aipatzekoak Durangaldeko bi korrikalariren markak: Aitor Ajuria otxandiarrak 10. postu on bat lortu zuen eta Asser Alonso atxondarrak 24. postuan sailkatu zen itzelezko maila erakutsiz lasterketa gogor honetan.



Garazi Sampedro Arando
Mendi lasterketak

"FEDME kopako lehenengo proba Sevillan lehiatu zen eta maila handia erakutsi zuten euskal korrikalariek"

"Asteburu honetan bestelako lasterketa bat lehiatu dute Kantabrian: Espainiako Trail Txapelketa"

Azken asteburu honetan, bestelako lasterketa mota bat lehiatu zen Kantabriako lurretan. RFEAren Espainiako Trail txapelketa izan zen Liencresko Costa Quebrada lasterketa ederrean (16km/590m+). Honek ez zuen Sevillakoaren antzik, askoz ere lasterketa azkarragoa baitzen, gainbehera metatu gutxiago eta korrika egiteko lurzoru

erosoagoa. Bertaratu ziren atleten maila izugarria izan zen; bai nesketan, bai mutiletan. Oihana Kortazarrek berriro zapaldu zuen podiuma, hirugarren postua lortuz. Eta argi utzi zuen orotariko korrikalaria dela, baldintza ezberdinetan ematen baitu maila bikaina korrikalari elgetarrak. Durango Kirol Taldeko onena izan arren, neskek 4. postu batekin konformatu behar izan zuten taldekako sailkapenean.

Mutiletan, aldiz, gure eskualdeko korrikalaria punta puntan aritu ziren: Gontzal Murgoitio elorriarra, Oier Ariznabarreta durangarra eta Aitor Ajuria otxandiarrak. Dena dela, lasterketa hartan egon zen maila handiaren erakusle izan zen taldekako sailkapenean podiumean sartzeko egon zen burruka estua. Azkenean, bosgarren postuan amaitzea lortu zuten Durango Kirol Taldeko mutilek.

DURANGALDE



Andra Mariko kanpandorrea

Uribarriko Andra Mariko parrokia Arandoño dorrera lotuta eraiki zen XVI. mendean, gaur egun kanpandorrea dena. Leku horretatik, 1937ko martxoaren 31n sirena hotsak entzun ziren hegazkin faxisten etorrera iragarritz.

KO TXOKOAK!

Ilargia Astxikitik



Durangaldearen ikuspegi ederraz gozatu daiteke Astxiki puntatik. Eta zeruan ilargi betea badago, inguru horretan sortzen den magia ikusgarria izan daiteke.

Hemen eta online



Sartu anboto.org-en
menuan **iragarkiak**
atalean eta klikatu bertan.

Beheko logotipo honen gainean klik egin eta
iragarkilaburrak.eus orrialdera eramango zaitu



Zure datuak sartu
eta **erregistratu**
egin behar zara.



IRAGARKIA JARRI

Goian dagoen irudiaren gainean klik egin eta iragarkia idatzi. Sartu gura dituzun datuak eta gorde datu horiek. Agertzeko, herria aukeratzekoan ipini Durangaldeko herri bat.



Aste horretan argitaratuko dira anboto.org-en




HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA / NEGOZIOAK
DENERIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA / KIROLA
FAMILIA / ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten doan: partikularrentzat.
Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta ipini zure iragarkia (Agertzeko, herria aukeratzekoan Durangaldeko herri bat ipini).

Paperean, ordainduta: enpresentzat. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kotsultatu 94 621 79 02 telefonoan.



Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO / Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Zorionak, **Naia (845. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Hilabete honetan **aitatxok** eta **Marak** urteak egiten dituzte. Zorionak etxekoan partez.



Zorionak, laztana, etxeko guztion partez zure 10. urtegunean. Jarraitu orain arte bezain jatorra izaten. Mosu erraldoi bat!




Zorionak, **Luken**, zure hirugarren urtegunean. Musu potolo bat Elorrixotik aitite, amama eta Eneritzen partez, eta jarraitu gure bizitza alaitzen.



Zorionak Zaldibarko **Oier Abini**, bere 6. urtegunean. Besarkada handi bat eta muxu pilo bat, aitite Valentin eta amama Mari Carmenen partez Errioxatik.



Zorionak, **Erla**! Aspaldixen ez gara alkarrak batu baina seguru gauz laster atzera be alkartuko garela plan politen bat eitteko. Zure lagunen partez, ondo pasau!



Zorionak, **Irati**, zure 13. urtegunean. Musu bat zure aita Lander, ama Ana, anai Endika, Luzia eta Eder lehengusuak, aitteite Karlos eta Luis, amama Enkarna eta beste senideen partez.

Botikak

BARIKUA, 30 · 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

MELERO, ROSA MARI

San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARO SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 1 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 2 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA 3 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

MARTITZENA, 4 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Murratorre 2C - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 5 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

EGUENA, 6 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

Eguraldia

ZAPATUA 13° / 7° ☁

ASTELEHENA 20° / 3° ☁

EGUAZTENA 21° / 9° ☁

DOMEKA 13° / 7° ☁

MARTITZENA 21° / 7° ☁

EGUENA 22° / 11° ☁

HAUREN IPUIN KONTALARIA

ANA APIKA

'ALBUM FAMILIARRA'

MAIATZAK 14
17:00 > 3-5 URTE BITARTEKOAK
17:45 > 6 URTETIK GORAKOAK

IBARRETXE KULTUR ETXEAN
*SARRERAK BIBLIOTEKAN JASO DAITEZKE

"Tristura ematen du herrian hainbeste lokal itxita ikusteak"

Monika Linazak Tëns arropa-denda zabaldu du Durangoko Montebideo kalean, eta osasun larrialdiak baldintzatutako egoera bizi duen arren animo eta ilusio handiagaz dago



Monika Linaz Labin
Tëns arropa-denda
DURANGO | 1976

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Linaza administrari lana egiten egon da oraintsu arte, Zornotzan. Baina lan hori utzi eta arropa-denda zabaldu zuen orain hilabete eskas. Nerabeek zuzendutako arropa-denda da batez ere. Pozarren dago izan duen erantzunagaz, jakitun den arren bidea hasi baino ez duela egin eta nobdeadeak beti duela harrera ona.

Osasun larrialdiaren eraginez hainbat komertzio txikik itxi egin behar izan dute. Ez duzu joeraren kontra zoazen irudipena?

Baliteke. Ama izan zen lehenengo esaten zoratuta nengoela. Pandemia batean gaude, bai, baina ilusio handiagaz zabaldu dut denda. Orain, lokala prezio askoz ere baxuagoan alokatzeko aukera izan dut gainera.

Administrari lana utzi duzu denda zabaltzeko. Ez zen erabaki erraza izango.

Turismo ikasketak ditut eginda eta 10 urtean bidaia agentzietan lanean ibili nintzen. Beti publikoari begira, jendeagaz hartu-emanen. Baina lan egiten nuen azken bidaia agentziak porrot egin zuenean administraritzza ikastaro batzuk egin nituen. Arlo horretan lan egin dut azken urte bietan, Zornotzan. Hala ere, oso gogorra egiten zait lau-horma artean inogaz barbarik egin barik lan egitea. Udatik gaiari bueltara ibili ondoren, denda zabaltzera animatu naiz. Alabak apur bat hazita ere badaude eta momentua dela ikusi dut. Orain egin ezean, ez nuen inoiz egingo. Gauza horregaz gertatu nintzateke bizi osoan.

Soineko edo gonak baino, prakak eta praka motzak gurago dituzte neskatuek, erosoago daudelako

Familiatik datorkizu dendari lanbidea.

Txikitatik edan dut merkataritza mundu horretatik. Aitak kirol-denda izan du Bilbon. Oso komertziala izan da beti, jendeagaz hartu-emana izatekoa. Eta niri ere asko gustatzen zait hori guzti hori. Nire lehenengo lana aitaren dendan izan nuen.

Nerabeentzako arropa saltzen duzu. Hutsune bat zegoela uste duzu?

Durangon badaude bizpahiru denda nerabeentzako arropa saltzen dutenak. Hala ere, nerabeek arro-

pa erostera Bilbora joateko joera handia dute, eurek gura dutena ez dutelako herrian aurkitu. Nerabeek gustuko izan dezaketen arropa-denda bat eskaintzea izan da nire helburua. Aldi berean, zerbait ematen didan lan batean jardutea, ahalik eta denborarik luzeenean.

Pozik zaude izan duzun erantzunagaz?

Oso pozik! Dendak oso harrera ona izan du, uste nuen baino hobea. Nerabeek eurek ezagutzen dituzten arropa markak ekarri ditut, eta gustuko dute dudana arropa. Nerabeek eurek eskatutakoaren arabera jardun gura dut. Izan ere, eurek lagundu diezadakete gehien zer gura duten ezagutzen.

Zelako bezeroak dira nerabeak?

Maitagarriak. Neskatoak ilusio handiz datoz, dena dute gustuko. Hau edo bestea gordetzea eskatzen didate, eta amagaz bueltatzen dira gero.

Irudia horren garrantzitsua den sasoi honetan, modaren morroi dira?

Adin horretan beti gaude modaren menpe, neurri batean. Oraindino ez ditugu gustuak oso finkatuta, eta besteek daramatenari begiratzen diogu. Modari jarraitzeko joera dago.

Zer dago orain modan?

Batez ere, kirol-jertse handiak. Neskek mutilentzat diren kirol-jertserik gehienak hartzen dituzte. Niki estu eta laburrak, eta kanpai formako prakak hartzen dituzte. Praka motzak ere bai. Soineko edo gonak baino, praka eta praka motzak gurago dituzte, erosoago daudelako.

Eta mutilek?

Ez dira sartzeraz ausartzen! Txandal-prakak, kirol-jertseak, biserak eta abar ditut, baina, ez dakit zergaitik, oso gutxi sartzen dira. Bikotekideek, amek... eramaten dizkiete.

Zelan bizi duzu interneten eragina?

Dendak denda ibiltzekoa naiz, asko gustatzen zait. Dendan sartu, ikusi eta probatzekoa naiz. Ez zait gustatzen Interneten bitartez erostea. Neskatoei ere uste dut gustatzen zaiela euren gustuko arropa ikusi edo probatzeko aukera izatea. Komertzioek eta ostalaritzak bizi handia ematen diete herriei. Tristura ematen du herrietan lokal guztiak itxita ikusteak.

Lau-hortza

Alina Ahtamon
Medikua



Dirua

Wikipediak dirua "ordaintzeko orokorki onartutako bitartekoa" dela dio, "bereziki ondasun eta zerbitzuen transakzioak burutu eta zorrak kitatzeko erabilia". Ez dakit ados zaudeten ala ez, baina definizio hori, gaur egun eta zoritxarrez, honela laburbil genezake: dirua munduko motorra da. Pentsa ezazue, gaur egun, zer gertatuko litzatekeen zuen etxe, zuen poltsiko eta bankuko dirua agortuz gero; gehienok ez dugu baratzerik edo animaliarik, gehienok alokairuan edo hipotekatutako etxean bizi gara, beraz, gehienok kalean eta janaririk gabe geratuko ginatke; erlazio erraza, eta

Oso beharrezkoa da zerbait egitea, dirua baino, "gu" munduko motorra bihurtzeko

"hori betidanik ezagutzen den zerbait baino ez dela" esango duzue, "ondokoari gerta dakioken zerbait baino ez da"... bueno, gertatzen ari da, egunero familia osoak kalean geratzen ari dira eta pandemiak zerikusi handia izan du horrekin. "Dirua ordaintzeko orokorki onartutako bitartekoa da", gizarte gisa dagoen egoera onartzen dugu eta ez dugu ezer aldatzen. Zer gertatuko litzateke dirua beharrean, ogia erosteko 200 gramo irin erabiliko bagenu? Edo astero zaharren egoitza batean ordu batzuk lan egingo bagenu alokairua ordaintzeko? Ez dakit, baina oso beharrezkoa da zerbait egitea, dirua baino, "gu" munduko motorra bihurtzeko.

ALKIMAX
Alquilamos soluciones

Eitua industriagunea, 71C
48240 BERRIZ (Bizkaia)
946 824 550 • alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net

